



PRENTSA OHARRA: 2026.06.03

## Deustuko Unibertsitateak eta Etxepare Euskal Institutuak lankidetzaz hitzarmena sinatu dute euskara eta euskal kultura sustatzeko

**Donostia, 2026ko ekainaren 3a.** Deustuko Unibertsitateak eta Etxepare Euskal Institutuak lankidetzaz hitzarmen marko bat sinatu dute eremu akademikoan, kulturean eta sozialean euskara eta euskal kulturaren sustapena eta zabalkundea indartzeko helbururekin. Irene Larraza, Etxepare Euskal Institutuko zuzendariak, eta Juan José Etxeberria, Deustuko Unibertsitateko errektoreak gaur berretsi dute elkarlanerako akordioa Donostian.

Lankidetzaz honen bidez bi erakundeek indarrak batuko dituzte prestakuntza- eta kultura-jarduerak antolatzeko, ikerketa- eta sorkuntza-proiektuak bultzatzeko, kultur eragileen eta unibertsitate-komunitatearen arteko topaguneak sortzeko, eta euskararen zein euskal kultur sorkuntzaren nazioarteko proiektuak indartzeko ekimenak garatzeko.

Hitzarmenak bost urteko indarraldia izango du, eta bost urteko aldietan luzatu ahal izango da. Epe horretan, bi erakundeek ezagutza-trukea, jardunbide egokien transferentzia eta beren misio instituzionalekin bat datozen ekimen partekatuek garatzea ahalbidetuko duten lankidetzaz sareak eta lan-dinamikak sustatuko dituzte.

Sinaduran izan dira ere, halaber, Monika Madinabeitia, Etxepare Euskal Institutuko Euskara Sustatu eta Hedatzeko zuzendaria; Ane Ferran, Deustuko Unibertsitateko Gizarte eta Giza Zientzien Fakultateko dekanoa eta Larraitz Ariznabarreta, Deustuko



Unibertsitateko Euskal Gaien Institutuko zuzendaria. Hain zuzen ere, Euskal Gaien Institutuak bideratu du bi erakundeen arteko lankidetzua hau.

1974an sortu zenetik, Euskal Gaien Institutuak euskararen eta euskal kulturaren inguruko ikerketa, hausnarketa eta ezagutza sustatzeko erreferentziazko gune akademikoa izateko bokazioa izan du. Ikuspegi diziplinarteko eta konparatibotik, eta tokiko nahiz nazioarteko erakundeekin elkarlanean, sare akademikoak ehuntzen eta sendotzen ditu, ikerketa sustatuz eta sortutako ezagutza gizarteratuz.

### **Etxepare Euskal Institutua**

Etxepare Euskal Institutua Eusko Jaurlaritzaren erakunde publikoa da, eta bere eginkizuna da euskara, euskal kultura eta euskal sorkuntza nazioartean proiektatzea, eta hauen bidez beste eskualde, herrialde eta kulturekin harreman sendo eta iraunkorrak eraikitzea. Horretarako, kalitatezko jarduera artistikoak sustatzen ditu, sortzaileen, artisten eta kultura eta sormen industrietako profesionalen mugikortasuna bultzatzen du, eta euskal ikasketak sustatzen ditu eremu akademikoan. Era berean, nazioarteko lankidetzua sustatzen du, bai kultura arloan bai unibertsitatearen esparruan.

#### **Info +**

Komunikazioa  
Etxepare Euskal Institutua  
Tabakalera / Andre Zigarrogileen plaza, 1  
Donostia / San Sebastián  
T: 943 023 400 / M: 688 670 217  
[komunikazioa@etxepare.eus](mailto:komunikazioa@etxepare.eus)

[www.etxepare.eus](http://www.etxepare.eus)